

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak nekazaritza-turismoko baldintzak eta halakotzat jotzen diren jarduerak arautu ditu

Geroz eta turista gehiagok nahi izaten dituzte halako eskaintzak, eta gaur egun aukera hori 71 landetxek ematen dute

Miércoles, 28 de mayo de 2014

Nafarroako Gobernuak, gaurko saioan, nekazaritza-turismoan jarduten diren enpresen baldintzak eta enpresa horiek eskaintzen dituzten jarduerak arautzeko foru-dekretua onetsi du.

Gaur egun halako jarduerak egiten dituzten 72 landetxe daude erregistratuta, batez ere baratzaren eta animalien zaintzarekin erlazioatutakoak.

Dekretuak jasotakoaren arabera, nekazaritza-turismoak turisten artean geroz eta eskaera handiagoa du; nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza gertuagotik ezagutzeko aukera ematen die.

Nekazaritza-turismoa nekazaritzako elikagaiak ekoizten dituzten enprekin erlazioatutako jarduera turistikoen eskaintza da, gozatzeko zein trebatzeko eta enpresa horien produktuak sustatzeko eskaintzen dena.

Jarduera horretan aritzeko baldintza batzuk bete behar dira, esate baterako, nekazaritzako ustiategiaren erregistroan, industriaren erregistro intergratuan edo nekazaritzako elikagaien artisautzarenean izena emanda egotea. Gainera, enpresaren neurria ezingo da izan mikroenpresa batena baino handiagoa.

Jarduerak

Araudiak nekazaritza-turismoan sartzen diren eta nekazaritzakoak, abeltzaintzakoak, basogintzakoak eta beste eremu batzuetakoak diren jarduera motak ere aipatzen ditu. Lehenengoan laboreen ereintza eta uzta, pentsua egitea, baratzaren zaintza edo zainzuriaren, olibaren, mahatsaren, landare sendagarrien eta tabakoaren laborantzarekin erlazioatutako lanak aipatzen dira.

Abeltzaintzaren kasuan, honako hauek dira turistei eskaintzen zaizkien jarduerak: ganadua larreetara eramatea, animaliak zaintzea, zuloa, jeztea, zaldi-ibilaldiak, ile-mozteak, eztoa eta arrautzak biltzea etab. Nekazaritza-turismoko jardueratzat jotzen dira, halaber, fruituak (intxaurrak, marrubiak, gaztainak etab.) bildu eta eraldatzearekin erlazioatutako basoko lanak.

Azkenik, ustiategi eta instalazioetarako (upategiak, dolareak...) bisitak, zuzeneko salmenta eta ustiategiak emandako produktuen

dastaketa eta eraldaketa (kontserbak, hestebeteak, esnekiak, gozokiak etab.) bezalako beste ekintza batzuk ere jardueren artean sartzen dira.

Urtean hiru hilabete

Halako jarduerak eskaintzeko interesa dutenek izena eman beharko dute Nafarroako turismoaren erregistroan. Bertan, ustiatagietan egin ahal izango diren jardueren eta, hala denean, salduko diren produktuen memoria aurkeztu beharko da. Edonola ere, jarduerak urtean hiru hilabetez gutxienez egin ahal izango dira, eta hilabete horietatik bat udakoa izan beharko da.

Nekazaritza-turismoaren ustiatagiaren titularrak plaka bereizgarri bat erakutsi beharko du establezimenduan bertan, eta jarduerari, prezioei, ordutegiei, jarraibideei eta abarrei buruzko informazioa ikusteko moduan jarri beharko du, lokalean bertan zein webgunearen bidez.

Amaitzeko, dekretuak dio jarduerak baldintza egokienetan gauzatu beharko direla, inguru natural eta kulturala zaintzen direla bermatzeko, eta bezeroen artean ere zaintza horretara bideraturiko jarrera sustatu beharko da.